

**IX. LEGEGINTZALDIA**  
**2015-2019 LEGEALDIA**  
**UXUE BARKOS BERRUEZOren**  
**INBESTIDURA-HITZALDIA**  
**(GEROA BAI)**

**GARAI BERRIA. XXI. MENDEKO NAFARROA**

Baina parlamentari jaun andereok, aldaketa ezin da nolabaiteko edukirik gabeko mantra huts bihurtu. Ekintza legegile eta exekutiboarentzako gida izateko, lehentasun eta neurri programa zabala eskatzen zuen. Eta hori izan da hauteskunderen ondorengo bi hilabete hauetan zehar aldaketa politikoarekin bere borondatez konprometitu diren indar politikoen jarduna.

Gogorarazi nahi dut zeregin horretara pertsonalki deituak izan zirela hautestontzia iturburu izan zuten indar politiko guztiak, baita, desberdintasun politikoaren logikaren ikuspegitik oposiziora pasa behar zuten indar politikoak ere. Une hartan, nahiz eta gure posizioak oso desberdinak izan, Nafarroaren interes orokorra defendatzeko gutxieneko izendatzaile komunak aurkitu behar ditugunaren uste sendoak gidatu ninduen eta gidatuko nau.

Sentitzen dut abagune hartan oposizioko indar nagusiak nire eskaintza atzera bota zuela esan beharra. Tribuna honetaz baliatuko naiz beste behin ere Nafarroarentzako estrategikoak diren gaietan elkarrizketa eraikitzailea berriz eskaintzeko.

Buru egin nahi dudan Gobernu honen jardunari zentzua ematen dion akordio programatikoa erdiesteko lan egin dugun moduari arreta eskaintzea eskatu nahiko nuke. Eta horrela egin nahi dut aldaketarekiko eskuzabaltasunetik alderdi politikoak, zeinak, neurri handi batean, koalizioak diren, adostasun-puntuak bilatzeko gai izan direlako metodoz eta beren oinarrienganako hutsik gabeko errespetuz.

Emaitza guztiz berritzailea da, lana ez baita hauteskunde-programen gain soilik egin, baizik eta, mahai sektorialetan eta ikuspegi espezializatuak eskainiz.

Horregatik guztiarengatik, foru-parlamentari guztiei gobernu-programaren jarduera-ildo nagusiak aurkezteaz harro sentitzen naizela esan behar dut.

Akordioen hedadurari dagokionez, aski da legegintzaldi honetan ezartzeko 600 neurritik gora jasotzen dituela adieraztea. Baimendu iezadazue edozein gobernu handinahiko gobernu-programa honekin hainbat legegintzaldirako izango lukeela adieraztea.

Noski, nire asmoa programa ahalik eta gehien betetzea da eta horren egikaritzaren kontrola horretarako eratutako jarraipen-batzordeak egingo du.

Akordioak sei bloke edo ardatz nagusi ditu: zerbitzu publikoari eta herritarraren erreskateari buruzkoa; ekonomia, enplegua eta fiskalitatea, industria, merkataritza, turismoa eta lan-harremanak.

Hirugarren tokian, arestian aipatu dudan autogobernua, demokrazia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bloke programatikoa. Laugarren tokian, tokiko administrazioa, azpiegiturak, ingurumena, landa-garapena eta lurralde-antolamendua. Aniztasuna, bizikidetzak, bakea eta biktimak eta, amaitzeko, funtzio publikoaren, justizia eta barne sailaren bloke programatikoa.